# Zein aterpe falta dira Pirinioetan?

*ESPAINIAKO Kirol Batzorde Nazionala, 1991-1994 urtealdirako Kirol Egitamu Nazionalaren barruan, dagozkion Autonomi Elkarteekin negoziatzen ari den Hitzarmenak ahotik atera du mendi-aterpeen egoera etorkizunean. Kontutan izanik 800 milioi garbi eman direla dirulaguntza bezala eta 1.425 milioi partekaturiko osoko inbertsio gisa, ezinbestekoa da galdetzea zeren bila gauden, diru askotxo bait da. Jakin beharko da zein aterpe mota diren, gerta bait liteke Mediterraneoko ondartzetan buruturiko turismo-inbertsio politika orain besterik gabe mendira aldatu nahi izatea.*

*Alpinismoak mendia —ahal den neurrian— gizatartzeko duen beharrak bultzatuta bere baitan dakartzan kontraesanen isladapen garbia dira mendi-aterpeak: nahita bilatutako gogortasun eta eskatzen den erosotasunaren arteko lehia, hau da, mendia hautatu gutxi batzuentzako mugatu edo turista pilari ere murriztasunik gabe aukera ematea. Berez, mendi-aterpeen helburua mendian ibiltzea erraztea zen bide-aldeak laburtuz. Gaur egun, alderdi asko aldatu direla bide, bestelako eginkizum garrantzitsuak bete behar direlakoan gaude: kutsaduraren barreiatzea galerazten dute, erreskate-lanetan laguntzen dute eta, jende gehien biltzen dutenek (Goûter, Goriz), gehiegizko maiztapena erregulatzen dute. Baina ugaldu eta gehiagotzearekin batera bestelako elementuak etor daitezke uztarturik (sarbideak, oinegituren lanak, etab.) medizaleon funtsezko balioak arriskutan jartzen dituztenak.*

*Argi dago goi-mendiko aterpeak zer diren: «mendizale guztioi alpinismoan jardutzea errazteko kirol instalazioak». Beraz funtsean ez daukate zerikusirik «goi-mendiko turismo»arekin, eta turismo hori kontrolpean jartzeko eskubidea dugu. Mendi-aterpeetan lehen helburua «zerbitzu publikoa» da, hoteletan aldiz, «irabazpideak edo ekonomiazko emankortasuna» dira nagusi. Praktikan alde hori CAF-ko «Charte de Qualité» izenekoaren arauak edo Pirinioetako Federakuntzen eskariz EMF-ko arduradunek gaurkotzen ari diren Pirinioetako Aterpeen Araudia betetzea eskatuz berdintzen da.*

*Oinarrizko erizpide horren bitartez bideratu behar da Piriniotako aterpeen egitamu orokorra. Gaurko aterpeen egoera hobeagotu behar da eta seguruenik aterpe berrien falta gaude, baina guzti hori goi-lurraldeak antolatzeko egitamu orokor baten barruan indarrean dauden aterpeen egitura eta maiztasunaren datuak zehatz-mehatz aztertu eta gero jakingo dugu. Horrela baino ez daukagu onar eta laguntzerik gogo beroz XXI. mendeko Pirinio egituratzen duen inbertsiozko egitasmo haundinahi bat.*

*Bitartean, Piedrafitako aterpea bukatzeko azken lanei laster ekingo zaieneko herria benetan betedadila espero dugu, eta horrela zeuk ere parada izango duzu aspaldidanik buruan darabilkizun ibilpide hori egiteko: gailurren bat, eski-zeharkaldia edo agian zure lehen hirumilakoa...*

> *«Aterpeen eraikuntzak eta edukierak ez dute erabiltzaile potenzialeen eskaeraren menpe egon behar, baizik eta inguruguneak kalterik gabe jasan dezakeen lagun-kopuruaren menpe.»*
>
> (Biellako tesia, Mountain Wilderness, 1987)

# ¿Qué refugios faltan en Pirineos?

**EL Convenio que, dentro del Plan Nacional de Deportes para los años 1991-1994, está negociando el Consejo Nacional de Deportes español con las Comunidades Autónomas implicadas trae sobre el tapete el tema del futuro de los refugios de montaña. 800 millones de subvención directa, y 1.425 millones de inversión total compartida, es mucho dinero como para no preguntarse qué es lo que se está buscando. Habrá que saber de qué refugios se está hablando, no vaya a ser que simplemente se intente trasladar ahora a la montaña la política de inversión turística en las playas del Mediterráneo.**

**Los refugios de montaña son un vivo reflejo de las contradicciones intrínsecas del alpinismo en su necesidad de humanizar —relativamente— la montaña: el dilema entre la dureza buscada y el confort exigido; entre el uso de la montaña por unos pocos seleccionados y el acceso indiscriminado de masas de turistas. En origen, los refugios cumplían la misión de facilitar la frecuentación de la montaña acortando las aproximaciones. Hoy, habiendo cambiado muchos factores, se defiende que cumplen también otros objetivos importantes: evitan la dispersión de la contaminación, sirven de apoyo a las operaciones de rescate y, los más concurridos (Goûter, Goriz), producen el efecto de regular la excesiva frecuentación. Pero su ampliación y multiplicación pueden traer aparejadas otra serie de elementos (accesos, obras de infraestructura, etc.) que ponen en peligro los valores que consideramos transcendentales en el montañismo.**

**Está claro lo que son los refugios de alta montaña «instalaciones deportivas destinadas a facilitar la práctica del alpinismo a toda la comunidad montañera». Es conceptualmente algo muy distinto a los hoteles de «turismo de altitud», cuya creación no tenemos derecho a dejar hacer sin control. En los refugios prima la noción de «servicio público» sobre la de «rentabilidad económica» que caracteriza el hotel. Y en la pdráctica esta diferencia se salva con la exigencia del cumplimiento de las regulaciones de la «Charte de Qualité» del CAF o del Reglamento para los refugios del Pirineo, que están actualizando los responsables de la EMF por encargo de las Federaciones Pirenaicas.**

**Con este principio básico es con el que hay que enfocar el plan general de refugios del Pirineo. Hay que mejorar las condiciones de los actuales y probablemente hacen falta refugios nuevos, cosa que sabremos después de analizar rigurosamente los datos de estructura y frecuentación de los refugios existentes, dentro de un plan general de ordenación del alto territorio. Sólo así podremos aceptar y apoyar luego con todo entusiasmo un ambicioso programa de inversiones que configure el Pirineo del siglo XXI.**

**Mientras tanto esperamos que se cumpla el anuncio de que se va a dar el último empujón a la terminación del refugio de Piedrafita, y así te podrás animar tú también a realizar esa salida que tienes pensada hace mucho para hacer alguna de las crestas, o una travesía de esquí o quizá tu primer tresmil...**

> **«La construcción y la capacidad de los refugios no deben estar determinadas por la demanda de los usuarios potenciales sino que deben depender del número de personas que el entorno natural pueda soportar sin perder su sentido.»**
>
> ***(Tesis de Biella, Mountain Wilderness, 1987)***